

► Irakurri arretaz (Txanela liburuko 20.or)

" *GLOBOAN IGO NAHI DUT!* "

Duela urte batzuk, kostaldeko herri txiki batean, Markel izeneko mutil burugogor bat bizi zen. Bederatzi urte zituen, eta sentipen berriak maite omen zituen. **Egun batean**, kaskezurrean sartu zitzaion globoan ibili behar zuela, eta gurasoek kasurik egiten ez ziotenez, izebari izugarrizko matraka eman zion, hark esan zion arte:



—Ondo da! Globoan paseatzera eramango zaitut, baina emadazu bakea!

Hamabost egun geroago, larunbat goiz batean, Markel izebaren etxera joan zen autobusa hartuta. Bidean ezin zen geldirik egon. Hain zegoen urduri!

Azkar baino lehen heldu zen izebaren etxera, oso gertu bizi baitzen, eta **berehala** abiatu ziren biak hondartzara, izeba Maiteren autoan.

Izebaren lagunek dena prest zeukaten **ordurako**, eta hondartzara heldu bezain laster, globora igo ziren izeba-ilobak. Markelen abentura hastera zihoan!

Mutikoa oso pozik zegoen globoa gorantz hasi **zenean**.

—Hau zoragarria da! —egin zuen oihu, eta barrez hasi zen.

Baina dena ez zen barrea eta algara izan. **Denbora asko baino lehen**, Markeli kilimak hasi zitzaizkion, sabelean pinpilinpauxak hegan bezala...

Azkenerako, urdailean korapilo baten antzekoa sentitu zuen Markelek, eta karea baino zuriago jarri zen.

Hori ikuste**an**, izeba Maitek esan zion:

—Zer, Markel, ondo al zaude?

—Sentipen arraro bat sentitzen dut hemen sabelean —esan zion Markelek.

—Zu ez al zara, bada, sentipen berriak maite dituen? —galdetu zion izebak, txantxetan.

Baina Markel ez zegoen txantxetarako. Gorputza bere onera etorri ezinik sentitzen zuen, eta, gutxien espero zuenean, gosaldutako guztia goraka etorri zitzaion. Han joan zen dena globotik behera! **Gero**, lurreratutakoan, belaunak gaztanberazkoak izan balitu bezala sentitu zituen Markelek.

—Hodeien gainean bezala sentitzen naiz —esan zion izebari, zeharo izututa.

—Hori ere sentipen berria da, ez da hala?

—Nahiko sentipen berri izan dut gaur! —esan zion mutikoak haserre.

Handik aurrera, sentipen berriak ezagutzeko gogoia baretu egin zitzaion Markeli. A!
Eta **urte askotan** ez zen gehiago igo globoan!

► Azpian aipatzen diren ekintza batzuk beste batzuk baino lehenago gertatu ziren. Ordena itzazu, denboraren arabera.

- () Markel izebaren etxera joan zen, autobusa hartuta.
- () Markel eta izeba Maite hondartzara abiatu ziren autoan.
- () Markeli kilimak hasi zitzaizkion.
- () Belaunak gaztanberazkoak balitu bezala sentitu zituen Markelek.
- () Markel karea baino zuriago jarri zen.
- () Gosaldu zuen guztia goraka etorri zitzaion.
- () Izeba-ilobak globora igo ziren.

► Unitatearen hiztegia lantzeko...

a) Ikasi hurrengo helbidean agertzen den hiztegia

<https://drive.google.com/file/d/1aBlk7iICj4PLw5XYm6Yar8frVxFRoRY-/view>